

Fazeria harremanak Lasa-Luzaide, 1860-1862

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:
<http://klasikoak.armiarma.com>
Imanol Trebiño, *Administrazio zibileko testu historikoak*, HAEE-IVAP, 2001
Bertsio informatiko honen egilea:
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,
nahi bezala erreproduzi daitezke.

Fazeria harremanak Lasa-Luzaide, 1860-1862

Lassan eguina Mayatzaren 25an 1860.

Lassaco Merac

Luçaideco jaun Alcatiary

Alcate jauna badut borondatia zuri pharte emaiteco nola Bankaco oyhan eta limitaco zainac eta guriac beren deboiretan zirelaric, dituzte bahitu bi behi eta hirur miga, egun goyzian hamar oren goicecuetan Goroldioco oyhanaren baithan, behi batec badu juare bat lepuan, eta dira markatiac bortzac zuen herrico markaz; othoizten zitut abertitciac behi heyen yabiac possible bazautçu causituco dituztela behi hec Lassan gure Etchian eta yitiaz ahalic lasterrena.

Alcate jauna

Borondate hunez zure cerbitçary

Lassaco Mera

Bigot

Lassan eguina Ekainaren 23an 1860

Lassaco Merac

Jaun Loiteguy Luzaideco Merari

Jaun Alcatia

Badut ohoria zuri parte emaiteco nola Bancaco oyhantzainac eta guriac dituzten sesitu zazpi behi buru, bortz behi eta bi aretche, egun goizian zortci orenetaco ingurian urzulahandico inguruetan, zoinac baitciren passatiac gure bazquetarat, behi hec eta bi aretchiac dira causitcen memento huntan Etchartian gure ethian Lassan.

Jaun Alcatia placer bacenu ukha borondatia jaquitiaz norenac diren cherbitchu eguin zenezaque handizqui alimale hejen jaber.

Letra hunen ekarliac behien marquiac errain dauzquitzu.

Zure cerbitzari gogo onez.

Lassaco Mera
Bigot

Lassan eguina uztailaren 19an 1860.garren urthian

Lassaco Merac

Luçaideco Loyteguy Alcate Jaunari

Jaun Alcatia

Badut ohoria zuri pharte emaiteco, nola gure oyanzain eta guardianuac fronteracuac dituzten sesitu gure bazquetaric Madariatic gorachago bi behor eta zamaribat, nola baitira alimale hec ez ezagutiac, othoizten citut jaun Alcatia balin bada nihor ere zure herrico habitantetan falta duenic, prevenitciaz, nola atzo arraxaldeco sei orenetan izan diren bahitiac, gure eta bancaco guardianiac, direla causitcen alimale hec gure etchian eta yinditen ahalic lasterrena behor eta zamari heyen bilha.

Jaun Alcatia badut ohoria

Zure Cerbitzari Izaiteco

Lassaco Mera
Bigot

Lassan Eguina Ekainaren 26an 1862.

Lassaco Merac

Jaun Alcate Luçaidecuary

Jaun Alcatia badut çuri erraiteco nola gure gardiana limitacuac pierre Biscarrec raporta eta dembora berian declaratu daut nola egun goiceco hamar orenetaco ingurian, bi zamari yualdunac ditien sesitu Madariaco Sorotic, alimalic dira causitcen Lassa hespuruco etchian, othoizten citut jaun Alcatia, fortunaz zuen herrin badira ukhan deçaçun borondatia yaquinaraztiaz zamary hoyen jaber, jinditen abere hayen eçagutcera eta dembora berian hemengo (fracfin) limitacuen pagatcera.

Jaun Alcatia

Salutacen citut Bihotcez

Urruty

